

Zabalotegiko laguntzailea kontratatzeko deialdiaren inguruan epaiak erabakitakoaren exekuzioa. Epaimahaiaren proposamena.

Begarako Udaleko Zabalotegi aretoko kultur ekintzetarako eta udalak antolatutako beste kultur ekitaldi eta jaialdietarako laguntzailearen lanpostua betetzeko udalak egindako deialdiaren inguruan, honen bidez jakinarazten da epaimahaiak 2016ko abenduaren 2an egindako bileran honako erabaki hau hartu duela:

“Begarako Udalak deialdia egin zuen Udaleko Zabalotegi aretoko kultur ekintzetarako eta udalak antolatutako beste kultur ekitaldi eta jaialdietarako laguntzailearen lanpostua betetzeko; eta prozesua bukatzeko alkateak emandako dekretuan erabakitakoaren aurka 16.070.439-V izangaiak Donostiako 2. zenbakiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegira jotzea erabaki zuen, eta bertan demandatu gisa Begarako Udalak parte hartu zuen.

Begarako Udalak interesatu gisa 15.399.950-R izangaiari ere enplazatzeko gonbita egin zion.

Begarako Udalak, Donostiako 2. zenbakiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegitik, 455/2015 prozedura laburtuari dagokion epaia jaso du, eta bertan jasotakoa gauzatzea dagokio.

Honako hau da aipatutako 455/2015 prozeduran erabakitakoa:

1.- *Begarako udalak Zabalotegi Aretoko ekintzetarako laguntzaile lanpostua betetzeko deialdiaren ebazpena zuzenbidearen aurkakoa deklaratu du.*

2.- *16.070.439-V andreak tartekatutako helegitea partzialki onartzen da,*

3.- *Zabalotegi aretoko ekintzetarako laguntzaile lanpostua betetzeko deialdia atzera egin eta epaimahaiak 16.070.439-V meritua baloratu beharko dituela, eta formazio osagarriak egikaritu behar duen postuaren funtzioak betetzeko zenbateko puntuazioa jaso behar duen erabakitzea epaimahaiari dagokiolarik.*

4.-*Erabaki honen oinarri juridikoa da:*

- *Administrazioaren Prozedura Bateratua arautzen duen 30/1992 Legeak 71. artikuluan jasotakoa aplikagarri dela lehia bidez (concurrentia competitiva) administrazioek lanpostu eta plazak betetzeko deialdietan, hau da, eskaerak baldintza guztiak ez dituenean betetzen osatzeko 10 eguneko epea ematea interesdunari.*

- *Deialdira aurkeztu zeneko eskaerarekin alegatu eta partzialki egiaztatutako meritua osatzeko aukera eman behar ziola udalak, horretarako 10 eguneko epea eman. Eta beraz Publizitatean eta Harreman Publikoetan Lizentziatura agiriak orduak jasota ez izatea, oinarrietan eskatzen zen baldintza, osatu zezakeen akatsa dela eta beraz aukera hori eman behar zitzaioa.*

Eta udalak horren aurrean erabakitakoa hau izan da:

“Zabalotegi aretoko laguntzaile lanpostua betetzeko deialdiko epaimahaia deitzea eta 16.070.439-V izangaiak aurkeztutako agiria epe barruan jasotzat hartu eta baloratzea eta dagokion proposamena egitea eskatzea.”

Horren aurrean, eta ikusita epaiaren oinarria, 2016ko abenduaren 2an epaimahaia bildu zen.

Bilera horretan, epaiaren exekuzioari begira honako hauek erabaki zituen:

"Prozesuaren oposizioaldiko fasea gainditu duten izangai guztien merituen balorazioa berrikustea eta bertan jasotakoari jarraituz ekitea.

Bestalde, eta bertan jasotakoari jarraituz, 16.070.439-V andreak aurkeztutako "Licenciatura en Publicidad y Relaciones Públicas" tituluari dagokion agiria aintzat hartu da, epe barruan jasota izan dela eta behar besteko informazioarekin jaso dela kontsideratu da, eta titulua baino ikasgaien azterketa egin da eta ikasgai hauek baloratuak izatea merezi dutela eta horrela egin da:

- 1.- "Introducción a la Publicidad y las Relaciones Públicas" (6 kreditu).
- 2.- "Sistemas y procesos de la Publicidad y las Relaciones Públicas" (12 kreditu).
- 3.- "Teoría y técnica de las Relaciones Públicas" (12 kreditu).

Gauzak horrela honako hauek dira merituei dagokienean izangai horiek alegatu eta egiaztatu dituzten merituen balorazioa:

8.1 atala (lan-esperientzia)

8.1.1. Lan-esperientzia udalean

8.1.2. Lan-esperientzia udaletik kanpo

8.2 atala (formazio osagarria)

8.2.1. Laneko arriskuen prebentzio arloan

8.2.2. Kultur ekintza eta ikuskizunen antolaketa, ikuskizun eta kultur aretoen kudeaketa eta segurtasuna, soinu eta argiztapen sistemak eta antzeko arloetako formazio-ekintzak.

8.2.3. Herritarren arretaren inguruko formazioa izatea.

8.2.4. Telekomunikazioekin edo soinu edo/eta argien instalazio ekipoen mantentze-lanekin.... titulazioa

IZANGAIK	8.1 atala		8.2 atala				Guztira
	8.1.1	8.1.2	8.2.1	8.2.2	8.2.3	8.2.4	
16.070.439-V	4,94	1,86	-	2,20	1	-	10
44.132.943-Z	-	2,36	-	1	-	5	8,36
15.399.950-R	1,60	-	-	1*	-	5	7,60
15.399.141-C	-	0,60	3	-	-	-	3,60
30.688.083-B	-	2,23	-	1*	-	5	8,23

* Gehienez lortu ahal diren puntuak gainditzen direla eta atal horretako mugara arte baloratu dira.

Gauzak horrela prozesu osoan izangaiek lortu duten puntuazioa honako hau izan da:

IZANGAIAK	TEORIKOA	PRAKTIKOA	MERITUAK	PSIKOTEKN	GUZTIRA
16.070.349-V	7,80	17	10	6,25	41,45
44.132.943-Z	6,22	19	8,36	5,33	38,91
15.399.950-R	6,34	19	7,60	7,98	40,92
15.399.141-C	6,95	15,25	3,60	5,62	33,88
30.688.083-B	6,22	16	8,23	5,77	36,22

Epaimahaiak proposatu du:

- 1.- 2015eko ekainaren 5ean egindako proposamena bertan behera lagatzea.
- 2.- Prozesu guztian izandako puntuazioa kontuan izanda, 16.070.439-V, hautagaia kontratatzea Zabalotegiko laguntzaile eta kultura eta jaietako laguntzaile lanpostua betetzeko.
- 3.- Prozesuan aurreikusitako gutxienerako puntuazioak gainditu dituzten beste izangaiekin Zabalotegiko laguntzaile lanerako lan-poltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran:
 - 1.- 15.399.950-R
 - 2.- 44.132.943-Z
 - 3.- 30.688.083-B
 - 4.- 15.399.141-C
- 4.- Proposamen hauen jakinarazpena egitea prozesuan oposizioaldia gainditu duten 5 izangaiei, alegazioetarako 15 eguneko epea emanez.”

Batzordeak proposatu du alkateak bertan jasotakoa onartzea eta onartu aurretik bertan jasotako proposamenaren jakinarazpena egitea prozesuan interesdun diren oposizioaldia gainditu duten bost izangai hauei eta alegazioetarako 15 eguneko epea ematea.

Halaber proposamen hau Udaleko Iragarki Taulan eta web-orrian argitara emango da.”

Ebazpenaren aurkako bideak:

Tramitekoa den ebazpen honen aurka ez dago errekurtsorik aurkezterik. Dena den egokiena deritzozun errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu.

Begara, 2017ko urtarrilaren 9a.

IDAZKARIAK

